

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2017-2018 Ikasturtea**

### **GURASOEN BANAKETAK ETA AITAREN ABANDONUAK HAURREN GARAPENEAN DITUZTEN ONDORIOAK HAUR HEZKUNTZAN. HAURREI LAGUNTZEKO OINARRIZKO ESTRATEGIAK.**

**Egilea:** Natalia García Aguirregoitia

**Zuzendaria:** M<sup>a</sup> Esther Zarandona de Juan

**Leioan, 2018ko maiatzaren 28an.**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Metodologia.....	4
2. Ikerketaren emaitzak.....	5
2.1. Familiaren egituraren aldaketak.....	5
2.2. Gurasoen banaketaren ondorioak haurrengan.....	7
2.2.1. Atxikimendu irudiaren aldentzearen ondorioak.....	7
2.2.1.1. Aitaren aldentze eta abandonuaren ondorioak.....	10
2.2.2. Gurasoen banaketa eta haurren dolu prozesua.....	14
2.2.3. Hurrek pairatzen dituzten erreakzio emozionalak.....	16
2.3. Oinarrizko estrategiak hurrei dibortzio egoeretan laguntzeari begira...	18
2.3.1. Gurasoen estrategiak.....	18
2.3.2. Eskolaren estrategiak.....	20
3. Ondorioak.....	22
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	23

**GURASOEN BANAKETAK ETA AITAREN ABANDONUAK  
HAURREN GARAPENEAN DITUZTEN ONDORIOAK HAUR  
HEZKUNTZAN. HAURREI LAGUNTZEKO OINARRIZKO  
ESTRATEGIAK.**

**Natalia García Aguirregoitia**

UPV/EHU

Lan honetan, ikerketa bibliografiko bat aurkezten da, non gurasoen banaketa eta dibortzioaren eraginez Haur Hezkuntzako adinean dauden umeez pairatzen dituzten ondorioak azaltzen diren. Horrez gain, arreta berezia eman zaio egoera hauek batzuetan ekartzen duten aitaren abandonuari, horrek haurrengan sortzen dituen ondorioetan sakonduz. Gainera, guraso eta irakasleek, elkarrekin zein elkarlanean, ume hauen hezkuntza prozesuan nola lagundu dezaketen ere agertzen da. Horretarako, garapenaren psikologiaren arlotik bereziki literatura zientifikoa aztertu da, ikerketaren helburuen arabera.

*Banaketa, abandonua, gurasoak, eskola, estrategiak*

En este trabajo, se presenta una investigación bibliográfica en torno a las consecuencias que sufren los niños/as en edad de Educación Infantil a causa del divorcio o separación de los progenitores. Además, se le ha dado especial atención al abandono que en algunas ocasiones se produce por parte del padre a causa de estas situaciones, profundizando en los efectos que estas producen en los menores. Así como a la manera en la que los educadores y padres, de manera conjunta y por separado, pueden ayudar en el proceso educativo de estos. Para ello, desde el campo del desarrollo psicológico, se ha analizado especialmente diversa literatura científica en base a los objetivos de esta investigación.

*Separación, abandono, padres, escuela, estrategias*

In this work, it introduces a bibliographic investigation in respect to the consequences that children suffer at the age of pre-school education, caused by divorce or separation of the progenitors. In addition, it has been given special attention to the abandonment which sometimes occurs by the father because of these situations, going into detail on the effects of these minors. Also to the way in which the educators and parents, working together and separated, can help the educational process of children. For it, from the field of psychological development, different scientific literature has been specially analyzed based on the objectives of this research.

*Separation, abandonment, parents, school, strategies*

## SARRERA

Txikitatik, bizitza idealarekin amets egiten dugu, oso zoriontsuak izango gara edo behintzat, horrekin amesten dugu. Arazoa dator gure bizitza ideal hori arrazoi ezberdinek apurtzen dutenean. Esaterako, gurasoak banandu direlako eta ondorioz, batzuetan guraso bat galtzen dugulako. Izan ere, Kübler-Ross eta Kesslerrek (2016) esaten duten moduan, galtze bat pairatzen dugunean, ez dugu soilik mina sentitzen galtze horren ondorio gisa. Bizitzari buruz ditugun usteak eta ideiak apurtzen eta galtzen ditugunean ere, mina sentitzen dugu. Hori dela eta, Campbell eta Muncer (1999) eta Kübler-Ross eta Kesslerrek (2016) diote, ume baten bizitzan dibortzio, banaketa edota guraso baten galtzea gertatzen denean, umeek galtze horren aurrean min izugarria pairatzen dutela. Gainera, egoera horiek familiaren haustura dakarte eta hori ere oso egoera latza izaten da umeentzat, batez ere familiak berebiziko garrantzia duelako umeen bizitzaren lehenengo urteetan, lehenengo agente sozializatzailea baita. Horregatik, nahiz eta dibortzio bat egon, funtsezkoa da familiako kideen artean harreman egonkorrak eta egokiak sortzea, bai eta atxikimendu harreman sendoa eta segurua sortzea ere, umeen ongizatea uneoro bermatze aldera (Rondón eta Funes, 2011). Hori dela eta, niri bereziki dibortzioa, banaketa edo guraso baten galtzearen eraginez umeek pairatu ditzaketen ondorioak ezagutzea interesatzen zait.

Horren ildotik jarraituz, aipatu beharra dago dibortzio egoerak gero eta ohikoagoak direla eta ondorioz, ikasgeletan egoera horretatik igarotzen ari diren gero eta ikasle gehiago daude. Hortaz, hezkuntza arloari dagokionez uste dut etorkizuneko irakasleek haien ikasleen beharrianak ezagutu behar dituztela eta hauei modu egokian erantzuna eman behar dietela. Horretarako, garrantzitsua ikusten dut familia-aniztasunari buruzko ezagutzak izatea eta dibortzio egoera batek haurrengan dituen ondorioak zeintzuk izan daitezkeen jakitea. Hortaz, irakasleak dibortzio egoeran dauden ikasleak haien bizi-egoera berrira egokitzen laguntzeko gai izan behar dira, eskolaren zeregina kasu hauetan erabakigarria izan daitekeelako umeen segurtasuna eta ulermena bermatu aldera.

Horregatik, eta guraso bananduen alaba naizenez gero, honen inguruko ikerketa egitea erabaki dut, ezinbestekoa ikusten dudalako egoera honek sortu ditzakeen ondorioak zeintzuk diren jakitea, nola aurre egin ikastea, nola bideratzen jakitea eta zer nolako estrategiez eta jarreraz baliatu umei laguntza eman ahal izateko.

## 1. METODOLOGIA

Ikerketa bibliografiko hau aurrera eramateko erabilitako metodologia dokumentuen azterketa izan da. Hala, modu koherente eta sistematiko batean dokumentu ezberdinak aztertu dira, ikerketaren helburuen arabera. Horren harira, aipatu beharra dago lana garapenaren psikologiaren ikuspuntutik gauzatu dela bereziki, haurren garapena, hezkuntza, eskola eta harremanen garrantzia aintzat hartuz.

Lanaren helburu nagusia, gurasoen banaketa edo dibortzio baten eraginez umeei pairatu ditzaketen ondorioak ezagutzea eta umeei laguntza emateko gurasoak eta eskolak zer nolako estrategiez baliatu behar diren ezagutzea da. Hala, horri buruzko informazioa eskuratzeko, hainbat iturri ezberdinez baliatzeko aukera egon da. Alde batetik, zenbait datu base erabili dira, hala nola, Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiko katalogoa, UNED-eko liburutegiko katalogoa, Dialnet, Google Akademikoa, Proquest Central eta CSIC. Horretarako, adierazle ezberdinak erabili izan dira informazioa eskuratzeko. Adibidez, familia, familia haurtzaroa, familia motak, familia eboluzioa, haurtzaroa, banaketa, dibortzioa, dibortzioaren ondorioak, galera (psikologia), galera emozionala, galera haurrak, haur dolua, dolua haurrak, atxikimendua, aitaren papera, gurasoen rola, abandonua, abandonu emozionala, abandonu fisikoa, tratu txarrak, tratu txar emozionalak, tratu txar fisikoak, eskola, familia eskola, emozioak, eta abar. Bestetik, dokumentu ezberdinak aztertu dira, esaterako, dokumentu zientifikoak (liburuak, entseguak, artikulak eta aldizkariak) eta bestelako dokumentuak (Haur Hezkuntzako Dekretua eta BOE). Dokumentu horien artean, batzuk zuzenean gaiarekin lotuta daude eta beste batzuk gaia hobeto ulertzeko aztertutakoak izan dira.

Datuen azterketa egiteko, literaturan agertzen diren gaiak sailkatu dira, bereziki haurrek pairatzen dituzten ondorioengan arreta jarritz.

## 2. IKERKETAREN EMAITZAK

### 2.1. FAMILIAREN EGITURAREN ALDAKETAK

Gaur egun oso zaila da familia kontzeptua definitzea, aniztasuna eta familia antolaketa oso zabalak eta konplexuak direlako. Bel Bravo (2000), Palou (2004) eta Rondón eta Funes-ek (2011) dioten moduan, familia, gizartearen oinarrizko taldea da. Familia bat ez da gizabanakoen batura, talde antolaketa bat da, denboran zehar aldatuz joango diren erlazio ezberdinez osatuta dagoena. Aldaketa horiek arrazoi ezberdinengatik eman daitezke, kideen gehitze eta galtzeen ondorioz edota familiako kideek jasaten dituzten aldaketen ondorioz, esaterako. Izan ere, edozein kiderengan aldaketaren bat egotekotan, familiako kideen lotura afektiboek aldaketak eragingo lituzkete familia osoaren egiturari. Halaber, umeei gurasoekin sortzen duten afektua oinarrizkoa izango da alde batetik, umearen garapen osoan eta bestetik, geroago sortuko dituen erlazio sozialetan, nortasunaren eraikuntzan eta eskola errendimenduan (Palou, 2004).

Aipatzekoa da ere, Bel Bravo (2000), Borobio (1994), López (2010), Oiarzabal (1988), Rodríguez (2010), Rondón eta Funes (2011) eta Solsona eta Treviño-k (1990) adierazten duten moduan, gaur egun gure gizartean aldaketa soziokultural nabarmenak egon direla. Esaterako, banaketa, dibortzio eta guraso baten abandonuaren indizea asko igo da eta egoera estresagarri hori gero eta familia gehiago esperimendatzen ari dira (Echeburua eta Alzate, 1990; González, 2013; Hernández, 2011). Gaur egungo gurasoak aurreko garaietakoak baino askoz gehiago banatzen dira eta ez bakarrik lehen Espainian banaketa debekatuta zegoelako, baimenduta zegoen beste herrialde batzuetan berdin gertatzen baitzen. Izan ere, BOE-k lege honen bitartez adierazten du nola 1981. urtera arte Espainian ez zegoen dibortzioa baimenduta, nahiz eta banaketa bai egon: “Ley 30/1981, 7 de Julio, por la que se modifica la regulación del matrimonio en el Código Civil y se determina el procedimiento a seguir en las causas de nulidad, separación y divorcio” (L 30/1981, uztailearen 7koa). Halaber, urte horretatik aurrera, nahiz eta dibortzioa baimendu, ezinezkoa zen zuzenean dibortzioa eskatzea, gutxienez bikote bat urte batez banatuta egon behar baitzen dibortzioa eskatzeko eskubidea izateko. Orain ordea, “Ley del Divorcio Express” legerari esker, gaur egungo bikoteek 2005. urtetik aurrera aukera dute zuzenean dibortzioa eskatzeko: “Ley 15/2005, 8 de Julio, por la que se modifican el Código Civil y la Ley de Enjuiciamiento Civil en materia de separación

y divorcio” (L 15/2005, uztailaren 8koa). Modu honetan, banaketa eta dibortzioaren eskubideak bateratuz. Hala, lege honen ondorioz, Espainian bikote apurketak bikoiztu egin dira eta hori dela eta, Europako dibortzio tasarik altuena duena Espainia bera da (González, 2013; Hernández, 2011).

Ondorioz, familia mota ezberdin askoren artean, Bel Bravo (2000), Borobio (1994), López (2010), Oiarzabal (1988), Rodríguez (2010), Rondón eta Funes (2011) eta Solsona eta Treviño-k (1990) egoera horien eraginez sortzen diren familia berriak aurkezten dituzte. Alde batetik, familia monoparentalari dagokionez, seme-alabek eta aita edo ama osatzen dute. Guraso baten gabezia osoa edo partziala izan daiteke, segun eta aldendu den gurasoak zenbait funtzio betetzen jarraitzen dituen. Hala ere, Borobio (1994) eta Oiarzabal-ek (1888) gehitzen dute familia monoparentalen sorkuntza beste arrazoi batzuek sortua ere izan daitekeela, ez soilik banaketa edo dibortzioen eraginez. Adibidez, guraso bat hil delako edota emakume batek laguntza barik bera bakarrik ama izatea erabaki duelako. Izan ere, Rodríguez-ek (2010) dioen moduan, aipatzekoa da emakumea buru den familia monoparentalen arrazoi nagusia, banaketa eta dibortzioen eraginez sortzen direnak direla eta aita edo gizonaren absentziaren eraginez ere familia mota hau sortu egiten dela. Ondorioz, familia mota honen sorkuntzan banaketak arazoak sor ditzake umearen eta bere amaren arteko harremanetan. Amak, aita eta amaren papera burutu beharko du eta horrek gurasoarengan estresa eta antsietatea sortu ditzake, modu honetan umearen hazkunde praktiken kalitatean beherakada sortuz (Campbell eta Muncer, 1999; Cantón, Cortés eta Justicia, 2009; Oiarzabal, 1988). Aitaren absentziari erreferentzia eginez, Brenner (1987), Campbell eta Muncer (1999), Fernández eta Godoy (2009) eta Pagès i Crivillé-k (2002) aipatzen duten lez, gurasoen banaketak aitaren galtzea suposatuz dezake kasu batzuetan, normalean bera baita umearekin bizitzeari uzten diona. Hala, Echeburua eta Alzate-ren (1990) arabera, umeei identifikazio arazoak pairatu ditzakete momentu horretan. Aipatzekoa da banaketa baten ondoren umeen %25ak ez duela inolako kontakturik aitarekin eta soilik %30ak aita ikusten duela astean behin. Horrez gain, aipatzekoa da beste bikote bat aurkitu duten gurasoak, umearen kustumak arduratzen ez direnak, kasu honetan aita, bikote berrian zentratzen direla eta horren ondorioz, euren seme-alaben mantenua eta bisitaaldiak gutxitzen dituztela.

Bestetik, Bel Bravo (2000), Borobio (1994), López (2010), Oiarzabal (1988), Rodríguez (2010), Rondón eta Funes (2011) eta Solsona eta Treviño-k (1990) familia

berreraikitua aurkezten dute. Familia honetan, bi familia ezberdinen banaketaren ondorioz, familia ezberdineko bi kide elkartzen direnean sortzen da. Kide bakoitzak aurreko bikotearen seme-alabak izan ditzake edota familia osatzeko elkartze berriarekin seme-alabak izaten dituzte. Kasu honetan, kustodiaz arduratzen den amak esaterako, bikote berri bat aurkitzen duenean, aurreko familia motan aipatutako egoeraren kontrakoa eman daiteke. Bigarren aita baten presentziak etxean umearen estresa murrizten lagundu dezake eta mantenuaren hobekuntza ere ekar dezake (Brenner, 1987; Campbell eta Muncer, 1999; Papalia eta Olds, 1992).

Hala, familiak, gizarteko partaide izaten laguntzeaz gain, balore eta arauak transmititzen dizkie seme-alabei, gizartean hobeto moldatzeko asmoarekin. Umeentzat, testuinguru afektiboetarako dagokienez, familia lehenengo agente sozializatzaile garrantzitsua da, bertatik abiatzen baitira umeek sortzen dituzten erlazioak eta lotura afektiboak. Gainera, familiari esker umeek euren nortasuna eraikitzen dute eta balore eta sinesmen ezberdinak jasotzen dituzte besteekin eta euren pertsona propioarekin erlazionatzeko (Palou, 2004; Rondón eta Funes, 2011).

## **2.2. GURASOEN BANAKETAREN ONDORIOAK HAURRENGAN**

Edozein adinetako ume batentzat, bere gurasoak banatuko direnaren berria ustekabekoa izan daiteke eta nahiz eta gurasoen artean zeuden arazoak ezagutu, larritasuna sentitzen dute (Cantón, Cortés eta Justicia, 2009). Campbell eta Muncer (1999) Cantón, Cortés, Justicia eta Cantón (2016) eta Cantón, Cortés eta Justicia-k (2009) esaten duten moduan, zenbait ikerketen emaitzek erakusten dute guraso banatuen seme-alabek arazo gehiago izaten dituztela sozializatzeko eta harremanak izateko. Gainera, barneko arazoak ere izaten dituzte, esaterako antsietatea, estresa edota depresioa.

Umeen bizitza erabat aldatzen da dibortzio edota banaketa baten eraginez eta egoera horren bidez pairatu ditzaketen ondorioak askotarikoak izan daitezke. Hala, literaturan zehazten diren ondorioak azalduko dira.

### **2.2.1. ATXIKIMENDU IRUDIAREN ALDENTZEAREN ONDORIOAK**

Gurasoen banaketak, batzuetan guraso baten galera dakar bere baitan. Hori dela eta, haurren egoerak eta ondorioak ulertzeko, ezinbestekoa da atxikimendua aintzat hartzea. Familian bertan sortzen diren lotura afektiboak, garrantzitsuak izango dira



umeen garapen afektibo, sozial eta emozionalerako. Horri, atxikimendua deritzo, norbera eta beste pertsona batzuekiko sortzen diren harremanak bere baitan hartzen dituen eta umeari beharrezkoa duen segurtasuna transmititzen diona. Hori dela eta, atxikimenduaren kontzeptua erabakigarria izango da umearen garapen integralerako (Dowling eta Barnes, 2008; Lizaso eta Apodaka, 2008; Ortiz eta Yárnoz, 1993).

Ume txikiek, jaiotzen direnetik, oso lotura afektibo estua erakusten dute amarekiko eta horrek garrantzi handia izaten du bizitza osoan zehar. Lotura afektiboa, gizabanako batek beste gizabanako batekiko sentitzen duen erakarpena da eta prozesu horretan umearen helburuak kontaktua, gertutasuna, konfiantza eta segurtasuna lortzea dira. (Benedek eta Brown, 1999; Bowlby, 2006; Franco, 2011; Fresneda, Morell eta Rodríguez, 2017; Geddes, 2010; Kagan, 1984; Lizaso eta Apodaka, 2008; Schaffer, 2009). Halaber, ume baten bizitzaren lehenengo bi urteetan, umea gai da amaren irudia ezberdintzeko eta berarekin egoteko beharra sentitzen du. Lotura afektiboa hain da estua, umeek esfortzu handiak egiten dituztela lotura afektiboa duten pertsonarekin gertutasuna mantentzeko. Hori dela eta, atxikimendu irudiekin erlazio ona sortzen bada, horrek segurtasun sentimenduak sortuko ditu umeengan kontaktu eta gertutasunaren aldetik eta bestetik, umeek larritasuna, antsietatea, atsekabea eta abandonua sentituko dituzte banaketaren eraginez. Hala ere, umearen lehenengo atxikimendu-irudia ama izan arren, hiru urtetik aurrera, atxikimendu egoera hori gutxitu egiten da, beste irudi batzuek ere garrantzia hartzen dutelako umearen bizitzan, aita esaterako. Modu honetan, umearen atxikimendu harremana ez dago pertsona bakarrera mugatuta, nahiz eta bere lehentasuna argi eta garbi erakutsi eta pertsona bakar batera bideratu (Bowlby 2006; Franco, 2011; Lizaso eta Apodaka 2008; Ortiz eta Yárnoz, 1993; Parke eta Guera 1981).

La relación especial que el niño establece con un número reducido de personas llamada apego es un “lazo afectivo” que se forma entre él mismo y cada una de estas personas, un lazo que le impulsa a buscar la proximidad y el contacto con ellas a lo largo del tiempo (Ortiz eta Yárnoz, 1993: 16 orr).

Bestalde, Benson eta Haith (2010), Elosua, Arrieta, Unanue eta Aizpitarte (2005), González (2013), Herbert (2002), Iglesias eta Romero (2009), Schaffer (2009) eta Tabera eta Rodríguez-ek (2010) adierazten duten moduan, umearen eta gurasoen arteko atxikimendu harremana, helduen jarrera eta portaeraren arabera izan daiteke. Beraz, gurasoen jarreraren arabera, hauek atxikimendu-harreman mota ezberdinak sortuko dituzte txikiekin: segurua, ez-segurua eta erresistentea edo anibalentea. Hala, umeak jaiotzen direnetik, familia da umeak dituen oinarrizko beharrak eta behar

emozionalak asetzeko arduraduna. Hori dela eta, gurasoen papera atxikimenduarekiko oso garrantzitsua da eta umeen ongizatea bermatzeko, umeek bizirauteko, zoriontsu bizitzeko, osasun emozional onarekin hazteko, euren beharrei modu egokian erantzuteko, maitatua sentitzeko eta gurasoekin behar duten atxikimendu harreman estua eratzeko, ezinbestekoa da beraiekin atxikimendu harreman segurua ezartzea, segurtasun beharra guztiz asetzeko eta beharrezkoa duten atxikimendu harreman hori hobekien eraikitzeke. Hala ere, dibortzio baten aurrean batzuetan zalantzan jartzen da atxikimendu seguru hori, zenbaitetan umeen ongizate integral hori kolokan ipintzen delako (Alegret, Castanys eta Sellarés, 2010; Etxeberria eta Pérez de Onraitia, 2010; Franco, 2011; Fresneda, Morell eta Rodríguez, 2017; González, 2013; Lizaso eta Apodaka, 2008; Ortiz eta Yárnoz, 1993; Palou, 2004; Schaffer, 2009).

Izan ere, nahiz eta umearen lehenengo kontaktua amarekin izan, ezin dugu ahaztu behar aitaren papera ere berebiziko garrantzia duela. Aitaren atxikimendu harremanari dagokionez, oso garrantzitsua da, etxetik kanpo umeak dituen harreman sozialetan eragin handia baitu. Halaber, aitaren atxikimendu irudia bigarren maila batean garrantzi handia izango du umearen haurtzaroan zehar, funtzio afiliatiboa duelako (Ortiz eta Yárnoz, 1993).

Bowlby-k (2006) esaten duen bezala, galdu daitekeen objekturik garrantzitsuena ama edo aita bera da. Beraz, kontuan hartzekoa da oinarri seguru baten zimenduak eraiki nahi badira, gizabanakoen artean dauden harremanek denboraldi luze batez iraun behar dutela. Halaber, harremanek irauten ez badute, atxikimendu harreman horiek apurtzeko arriskuan egon daitezke. Izan ere, atxikimendu irudiarekin harreman onak eta egokiak oso garrantzitsuak dira haur txikiarentzat eta abandonu, gurasoen banaketa edota beste egoera baten ondorioz eman daiteke atxikimendu harremanen apurketa hori, urte batzuk geroago, orain nagusia egin den ume horren bizitzan eragin handia izango duena (Lamb eta Lerner, 2015). Aipatzekoa da, ondorio hauek beti zorigaiztokoak direla, alde batetik identifikazioaren aldetik atxikimendu irudiaren aldentzea eragiten duelako eta bestetik, irudiaren rolaren zeregina betetzen ez delako. Hala, garrantzitsua da gurasoen banaketen edota abandonuen eraginez umeek pairatu ditzaketan arazo eta ondorioak ezagutzea, horiei irtenbide bat bilatzeko asmoarekin. (Salzberg, 1993).

Umearen eta zaintzailearen artean lotura afektibo berezia sortzeko, ezinbestekoak dira parte hartzea eta interakzioa, baina umeen segurtasun eskaeren aurrean zaintzailearen sendotasunik gabeko erantzunek, antsietatea sorrarazten dute

txikiarengan. Modu horretan, zaintzaileen jokabide hauen ondorioz, umeek pertsona horrekiko lotura emozionala galtzen dute, batez ere zaintzailea eta umeen arteko banaketak denbora luzez irauten badu. Kasu horretan, umeek ez dute interesik adierazten pertsona horiekiko. Eta zer gertatzen da umea seguru sentitzen ez bada? Lotura afektibo ez-seguruek, umeen garapen psiko-sozialean eragin handia dute. Beraz, dibortzio, abandonu edota axolagabekeriak eraginda, umeengan depresioa, gorabehera emozionalak, bakardade sentimendua, agresibitatea, auto-kontrolik eza, erlazionatzeko zailtasunak eta amorrua sortu daitezke, lotura afektiboaren nahasmendua agerian ipinuz (Benedek eta Brown, 1999; Fresneda, Morell eta Rodríguez, 2017).

### **2.2.1.1. AITAREN ALDENTZE ETA ABANDONUAREN ONDORIOAK**

Aurreko atalean aipatu den bezala, umearen eta bere atxikimendu irudien artean ezartzen diren harremanek denboraldi luze batez iraun behar dute, bestela harreman horiek apurtu eta lotura afektiboan nahasmenduak sortu daitezke (Benedek eta Brown, 1999; Bowlby, 2006; Fresneda, Morell eta Rodríguez, 2017; Lamb eta Lerner, 2015). Hori horrela izanik, garrantzitsua da aita galtzearen ondorioak aztertzea, baina lehenago komeni da aitaren papera zein den ezagutzea. Aipatzekoa da orain arteko kasu gehienetan, rolei dagokienez, dibortzio egoera baten ostean umeen zainketa amaren ardurapean gelditu izan dela, aita izanik normalean etxetik ateratzen dena. Horrela, aitaren papera eta ardura desagertzen dira gutxinaka. Izan ere, kasu ezberdinak daude, esaterako aita etxetik joatea, bere rola ez betetzea, umearen oinarrizko beharrianak eta beharrian afektibo-emozionalak ez asetzea eta umearen bizitzatik erabat desagertzea (Rondón eta Funes, 2011).

Oso goizetik, umeek bere gurasoekin lotura afektibo zehatzak garatu baino lehen ere, bere aitarekin duten harremanaren kalitateak asko eragiten du umeek beste helduekin dituzten interakzioetan. Hori dela eta, umeek eremu profesional eta sozialean, kulturaren integrazioan eta mugak onartzeko dituzten gaitasunetan moldatzeko erabiliko dituzten moduek, aitatasun funtzioarekin zerikusi handia daukate. Orobat, funtzio hori psikismoaren oinarria da, identitate propioa sortzen ahalbidetuko duena. Horrez gain, aita bere papera modu egokian betetzen badu, seme-alabek segurtasun handiagoarekin jardungo dute euren bizitzetan. Hori hala izanik, aitaren irudia oso garrantzitsua da umearen independentziaren eta gaitasun intelektualen garapenean. Aitaren inplikazioa aktiboa bada, emaitza hobeagoak lortuko dira bere seme-alaben garapen sozial eta emozionalean. Bion arteko erlazio hori, haurraren izaera eta bere etorkizun afektiboa

eraikitzeo nukleoa izango da eta interakzio horiek gabe, oso ohikoa izan daiteke umeek nortasunaren eraikuntzan arazoak aurkitzea (Golombok, 2006; Menéndez, 2017; Papalia eta Olds, 1992; Parke eta Guera, 1981).

Izan ere, nahiz eta ume txikiek euren amaren ondoan egoteko beharra izan, horrek ez du esan nahi berarekin itxitura batean egon behar direnik. Umearen lehenengo urteetan beharrezkoa da gertutasun eta egonkortasun afektibo harremana sortzea, gutxika antsietate goiztiarrak gainditzeko. Izan ere, aitaren funtzioa ezinbestekoa da umeen autonomia sustatze aldera. Kasurik nagusienean, Rodríguez de Ibarra-k (1999) esaten duen bezala, aitaren ausentzia dibortzio baten eraginez gertatzen da gehienetan. Halaber, dibortzioa ez da zertan aitatasuna edota umeak behar dituen segurtasun, konfiantza eta intimitate kontzeptuak eragozteko ondorioa izan. Azken finean, umea gurasoen mendean dagoen pertsona da eta osasuntsu hazteko, biekin erlazioak mantendu beharra du (Salzberg, 1993).

Esta es la gran aportación –aportación que es también un derecho del niño– que la paternidad ha de hacer a los hijos. Esa aportación les invita a saber que no hay un “yo” sin un “tú”; que el “yo” se desvela en cierta forma en las relaciones con el “tú”; que en esas relaciones ha de haber paridad y no un “yo” gigante en fragante desequilibrio con un “tú” enano, o viceversa; que sin el olvido del “yo” no se alcanza la presencia del “tú”; que si se olvida al “tú”, tanto más se olvidará el “nosotros” de la pareja; y que si se olvida el “nosotros”, será inevitable el olvido del “vosotros”, que son los hijos (Polaino-Lorente, 1993: 24 orr).

Aitaren presentzia eta bere seme-alabenganako erlazioek, txikiek bizi dituzten bizipen txarrak leuntzen laguntzen dute. Baina aita ez badago edota umeak ez badu interakziorik sortzen bere aitarekin, arazo txikia zirudiena, erresuminaren oinarria izan daiteke, joko txarren jatorria (Bronfenbrenner eta Condry, 1970). Izan ere, Bronfenbrenner eta Condry (1970) eta Rodríguez-ek (2010) dioten moduan, aitaren absentiak etxeko bizikidetzan umeen garapen afektiboa, jarrera eta erlazioak guztiz baldintzatu ditzake. Fresneda, Morell eta Rodríguez (2017) eta Menéndez-en (2017) esanetan, aitatasuna eginkizun emozionala da, bere funtsa honako hau dena: umea laguntzea mundura atera daitekeen arte bere burua bere kabuz zaintzeko.

Horren harira, garrantzitsua da aipatzea Cantón eta Cortés (1997), De Paúl (1993), Kempe eta Kempe (1985), Martínez eta De Paul (1987), Moreno eta Rabazo (2005) eta Robaina-k (2001) esaten duten moduan, ume baten abandonatze fisikoa gertatzen dela bere oinarrizko beharrak asetzen ez direnean, berdiz izanda zein den horren arrazoia eta umearen arduradunak min kognitibo, fisiko, sozialak edota

emozionalak eragiten dituztenean umeen osasuna, segurtasuna eta ongizatea zaindu gabe. Hala, hiru babesgabetasun maila desberdinu daitezke. Alde batetik, babes neurriak betetzen ez direnean eta umearen gurasoek bere beharrezanean uko egiten diotenean. Esaterako, aitatasunari uko egiterakoan. Bestetik, ume batek dituen oinarrizko beharrak modu egokian betetzen ez direnean. Amaitzeko, egoera ezberdinak direla eta umearen beharrak ase ezin daitezkeenean. Adibidez, gurasoren bat hil delako edota gaixotasunen bat pairatzen dutelako (Moreno eta Rabazo, 2005). Hala, orain arte abandonuaren ondorioz esan daiteke aitaren galtzea beti ondorio kaltegarria dela eta beharrezan ez asetzearekin lotu izan dela. Gainera, abandonuak alde batetik, identifikazioaren aldetik aitaren irudiaren absentsia dakar, eta bestetik, bere rola gabezia.

Halaber, Morales eta Renée (2016) eta Salzberg-ek (1993) esaten duten moduan, aitaren abandonua izan duen ume batek ondorio ezberdinak pairatu ditzake. Esaterako, umea *amari edo oso erlazio afektibo estua duen pertsona bati atxikitze joera* izango du, bera baita bere zaintza eta hezkuntzaz arduratzen dena. Berarekin dituen erlazioak etengabe kontrolatuko ditu eta pertsona horren mendeko atxikimendua sortuko du, aurretik izandako banaketa eta abandonuen aurrean beldurra erakusten duelako, ez baitu pertsona edo irudi hori ere galdu nahi. Abandonuak eragiten duen beste ondorio bat, *hutsune existentziala* da, isolamendua, gogogabetasuna, autoestimua galtzea eta larritasuna ekar ditzakeena. Muturreko kasuetan, izaeraren apurketa ere eragin dezake, zeinek arazo psikologiko eta mentalak sortu ditzakeena.

Askotan pertsonak, maite dituzten kideen galtzeen aurrean, arazo baten aurrean kokatzen dira, batez ere, aurkako emozioak sentitzen zituzten aita bati buruz ari garenean. Galtzea gainditzeko eta ebazteko eragozpena euren barnean dago, ez dutelako ulertzen zergatik sentitzen diren horrela erlazio ona ez zuten pertsona horrekin (Kübler-Ross, Kessler eta Avalos, 2012). Beraz, Sabaterrek (2015) esaten duen bezala, aita absentea ez da soilik atxikimendu irudi baten hutsune fisikoa. Zenbaitetan *hutsune psikologikoa* da, hau da, bertan dagoen irudia baina ez duena bere rola betetzen. Modu honetan, aita gabe hazten diren umeak normalean ez seguruak izaten dira, auto-estima oso baxua erakusten dute eta sozializazio prozesuetan zailtasunak erakusten dituzte (Sanabria, 2009). Gainera, horrek ekarri dezake mesfidatiak eta beldurtiak izatea, beste pertsona batzuegan pisu afektibo handia ipintzea, segurtasunik eza eta ez ikusiak edota traizionatuak izatearen beldur izatea. Halaber, hutsune psikologikoaren ildotik jarraituz,

kasu honetan umeek abandonu emozionala pairatuko dute, Cantón, Cortés, Justicia, eta Cantón (2016), De Paul (1987), Gracia, Lila eta Musitu (2005), Prat eta Del Río (2005), eta Papalia, Olds eta Duskin-en (2009) esanetan, gurasoen porrota dena, ez baitituzte umeek beharrezkoak dituzten behar afektibo eta emozionalak asetzen. Orobat, maitasun eta afektu eza dagoenean eta laztanak alde batera uzten direnean.

Horrez gain, aita absentea duten ume nagusiagoetan ikusten da nola aitaren ausentzia horrek *eragina duen bere seme-alaben kideak eurak onartzerako orduan*. Hala, egoera honetan dauden umeek ez dute begikotasunik erakutsiko eta ez dituzte euren kideekin behar bezalako erlazioak izango, lotsati eta uzkurragoak izateko joera izango baitute (Parke eta Guera, 1981).

Orobat, aitak abandonatu duen txikitxoak, *beste gizon batean bilatuko du bere aitarendik jaso ez duena*, aititean esaterako. Izan ere, maite dugun kide bat aldentzen denean, berak betetzen zituen rola hutsik geratzen dira eta ondorioz, modu kontziente edota inkontzientean, umeak edota edozein pertsonak, beste pertsona batzuei esleituko dizkie bere kide maiteak betetzeari utzi dituen rola (De la Serna, 2017; Kübler-ross eta Kessler, 2016). Horregatik, abandonuaren ondorioak saihesteko, garrantzitsua izango da umeak bere familian segurtasuna, konfiantza eta maitasuna transmititzen dizkioten pertsonak aurkitzea.

*Autoestimu baxua* izatea ahaztu ezin dugun beste ondorio bat da. Umeak txikiak direnean zenbait gabezi aurkitzen dituzte euren buruarengan, konfiantza falta, beldurra eta frustrazioa esaterako. Adin horretan, aitaren irudiaren kontzientzia hartzen dute eta aita falta denean, errealitateari aurre egiteko beharra izaten dute, ulertzeko nagusitasuna izan gabe. Aitaren gabezia estaltzeko modua bilatuko dute konturatu gabe, bai aitonekin, osabekin edo beraiekin erlazioa duen beste gizonekin, eurekin identifikatzeko asmoz (Acosta, 2017; De la Serna, 2017).

Aitaren gabeziak umeek *eskolan errendimendu baxua* izatea ere eragiten du. Hala, umeek antsietatea, interes falta, gogogabekeria, estresa, kontzentrazio falta eta depresioa pairatuko dituzte. *Jokabide arazoak* ere aurkitu daitezke. Gizartearenganako asaldura erakusten dute, ez dituzte arauak errespetatzen eta inork ez dituela ulertzen sentitzen dute. Azkenik, *identitatearen kontrolik eza* aipatu beharra dago. Ume baten izaeraren garapenaren oinarria familia bera da. Aitarendik gabezia izatean, umei zaila egiten zaie gaitasunetan eta jarreretan garapena bermatzea (Acosta, 2017).

Amaitzeko, Kübler-Ross eta Kesslerrek (2006) diotena aipatu beharra dago. Umeek ez dute baliabide eta esperientzia nahikorik kide baten galtzea barneratzeko. Euren buruetan hutsuneak betetzen dituzte ideia ezberdinekin eta ideiarik ohikoena euren errua izan dela izaten da. Halaber, umeak maitasuna sentitzeko helduak badira, mina sentitzeko ere eta normalean ahazten diren saminduak izaten dira. Kontuan hartzekoa da askotan umeek ez dakitela euren beharrak edota galtzearen ondorioz pairatzen dituzten sentimenduak nola adierazi eta beraz, euren emozioak hitzez adierazteko gabezia daukate. Izan ere, umeek galtze bat esperimintatzeko duten modua euren bizitzan zehar igarotzen dituzten memento eta egoeretan islatuta agertuko da, dolu batetik igaroz. Horrek eragina izango du umeek erlazioak dituztenean sentituko duten segurtasunean. Era berean, Kübler-Ross, Kessler eta Avaros-ek (2012) esaten duten moduan, maite dugun pertsona baten banaketaren eraginez sentitzen dugun mina, gauzarik zailenetarikoa da. Norberak bere denbora eta moduak ditu dolu hori gainditzeko. Normalean, mementoa heltzen denean gure sentimenduak antzematen ditugu. Bitartean, prest egon arte gordeta irauten dute.

### **2.2.2. GURASOEN BANAKETA ETA HAURREN DOLU PROZESUA**

Gurasoen banaketak, dolua dakar bere baitan eta gainera dolu horri beste dolu bat gehitzen badiogu, hau da, guraso baten galtzea, oso egoera ezegonkorra sortzen da umearengan eta literaturan asko aipatzen ez den arren, haurra dolu prozesu batean murgilduta egongo da. Abandonuak, atxikimenduarekin du zerikusia. Izan ere, gurasoen banaketak, familiaren apurketa dakar, inola ere ez umeen abandonua. Hori gertatzen denean, umeak banaketaren ondorioez gain, guraso baten galtzearen ondorioak ere pairatzen ditu (Salzberg, 1993). Hala, garrantzitsua da dolu prozesuaren ezaugarriak ezagutzea.

De la Herrán eta Cortina (2006) eta Gómez-Sancho-ren (2004) arabera, harreman afektibo bat apurtzen denean sortzen den sufrimendu jarrera edo erreakzio emozionala da dolua. Bada, osagarri fisiko, sozial eta psikologikoak hartzen ditu bere baitan eta horien intentsitatea eta iraupena, galtzearen dimentsio eta esanahiaren arabekoak izango dira. Hala ere, Kübler-Ross eta Kesslerrek (2016) dioten moduan, doluaren aurrean ez dago ohiko erreakziorik eta ez dago ohiko galtzerik. Modu horretan, gurasoen dibortzioaren eraginez umeak pairatutako gurasoaren galtzea, bere erara sentituko du, dolua gure bizitza bezain propioa baita.

Kübler-Ross, Kessler eta Avalos (2012) eta Marquina, Oviedo eta Parra-k (2009) adierazten duten lez, dolua igarotzeko bost etapa daude, ezeztapena, haserrea, negoziazioa, depresioa eta onarpena. Halaber, Acosta eta Bembibre (2016), De la Herrán eta Cortina (2006) eta Schenetti-ren (2011) esanetan, umeek ere emozioak dituzte eta helduekin konparatuz, modu ezberdin batean esperimendatzen dute dolua. Aipatzekoa da 3-6 urte bitarteko umeengan fase batzuk ematen direla, normalean gradualki betetzen dituztenak, nahiz eta noizbait baten bat ez igaro. *Lehenengo fasea*, ezjakintasunaren fasea da. Honetan, umeak ez daki bere familian zer gertatzen ari den, faltan botatzen du dibortzioaren eraginez bere ondotik alde egin duen pertsona eta gertu ez dagoela nabaritzen du. *Bigarren fasea*, abandonua da. Fase honetan umeak uste du bere ondoan zegoen pertsona alde egin duela eta bueltatzen ez dela ikusten duenez, ez-maitatua sentitzen da. Gainera, uste du bere jarreraren eraginez pertsona hori joan egin dela eta gurasoen dibortzioaren errua bere buruari botatzen dio. Aurrerago, denbora aurrera doanez eta pertsona ez denez bueltatzen, umea abandonatuta sentitzen da eta horren eraginez aldendu den irudia errefusatzen du. Azkenik, umeak suposatzen du irudi horrek ez duela maite, maite izatekotan itzuliko zelako (Alberdi, 1999; Benedek eta Brown, 1999; Bengoechea, 1992; Cantón, Cortés eta Justicia, 2009; Dowling eta Barnes, 2008; Fernández eta Godoy, 2009; Gardner eta Weil, 1995; James, Friedman eta Matthews, 2002; López, 2010; Morgado, 2003; Pagès i Crivillé, 2002). *Hirugarren fasea*, itxaropen ezari dagokio. Umeak uste du pertsonaren falta ez dela aldi baterako izango, beraz, beste pertsona horren gabezia edo falta beste pertsona batean bilatzen du. Horrez gain, umearen ustetan, ez dago ezer egiterik gauzak aldatu ahal izateko (De la Serna, 2017; Kübler-ross eta Kessler, 2016). *Laugarren fasea* onarpena da. Umeak jada onartzen du joan den pertsona ez dela berriz ere itzuliko. *Azkeneko fasea*, baiezkotasuna da. Fase honetan umeak objektiboki onartzen du joan den irudiaren hutsunea. Hala, bere bakardadea heldutasunez eta autonomoki eraldatzen du. Gainera, egoerak gaintzeko bere gaitasunez ohartzen da (Acosta eta Bembibre, 2016; De la Herrán eta Cortina, 2006; Gordillo, Gordillo, Gordillo, Guillén eta Ruiz, 2013).

Kontuan hartzekoa da umeek dolua adierazteko eta horri aurre egiteko izango duten gaitasuna, euren adinaren eta lortzen duten garapen maila kognitibo eta emozionalaren araberakoa izango dela. Beste autore batzuek diote oso txikiak diren umeek prozesu hau igaro dezaketela, lotura afektiboa duten pertsonekin banaketak eta galtzeak esperimendatzen dituztenean erreakzio ezberdinak erakusten dituztelako.



Horrela, erreakzio hauei dagokienez, hainbat ezberdindu daitezke, adibidez, galtzearen aurrean nahastea edo hunkipena, abandonu sentimenduaren aurrean haserrea, beste gurasoa galtzearen beldurra izatea, biolentzia jarrerak familia edota berdinekiko, tristura, erru sentimendua, eskolan errendimenduaren jaitsiera, lo egiteko eta jateko arazoak, erregresio jarrerak gaintuta dauden garapen estadioekiko, eta abar. Izan ere, normalean adierazpen fisiologikoak gehiago antzematen dira, sentitzen dutena adierazteko eta identifikatzeko zailtasunak izateagatik (Acosta eta Bembibre, 2016).

### **2.2.3. HAURREK PAIRATZEN DITUZTEN ERREAKZIO EMOZIONALAK**

Umeei gurasoen banaketaren aurrean, erreakzio ezberdinak erakusten dituzte. Baina Alberdi (1999), Cantón, Cortés eta Justicia (2009) eta Fernández eta Godoy-k (2009) esaten duten moduan, garrantzitsua izan daiteke ere aintzat hartzea zer nolako komunikazioa ezartzen duten gurasoek umearekin banaketa eman eta gero. Normalean, txikiak ez dira gai modu errealista batean banaketaren kausa eta ondorioak ebaluatzeko. Hori dela eta, abandonuaren aurrean antsietate handia erakusten dute.

Hasteko, tristura erreakzio emozional ohikoena da. Brenner (1987), Benedek eta Brown (1999), Fernández eta Godoy (2009), Gardner eta Weil (1995) eta López-ek (2010) azaltzen duten lez, gurasoen banaketaren aurrean, umeei badakite egoera hori ez dela denboraldi baterako banaketa izango, hau da, umeei ulertzen dute familia testuinguru hori ez dela berriz ere normaltasunera itzuliko. Ume baten bizitzan aita eta ama ordezkazkinak dira eta banaketaren ondorioz, txikiak nahitaez eguneroko erlazioa galduko du bietako batekin. Hala, normala da umeei negar egitea guraso baten aldentzearen eraginez.

Beldurra eta haserrea ere erreakzio garrantzitsuak dira. Txikiak beldurra sentitu dezakete bizi diren gurasoek abandonatuta sentitzearen beldur direlako edota uste dutelako gurasoen arteko maitasuna amaitu denez, beraienganako maitasuna ere amaituko dela. Gainera, badakitenez banaketaren aurrean ezin dutela ezer egin, bere haserrea biolentzia, depresio eta jarrera txarrekin erakusten dute (Benedek eta Brown, 1999; Dowling eta Barnes, 2008; Fernández eta Godoy, 2009; González, 2003; López, 2010; Morgado, 2003).

Erru sentimendua ahaztu ezin dugun erreakzioa da. Etapa honen bereizgarri gisa, umeen egozentrismoa aurkitu daiteke. Horren eraginez, Alberdi (1999), Benedek

eta Brown (1999), Bengoechea (1992), Cantón, Cortés eta Justicia (2009), Dowling eta Barnes (2008), Fernández eta Godoy (2009), Gardner eta Weil (1995), James, Friedman eta Matthews (2002), López (2010), Morgado (2003) eta Pagès i Crivillé-k (2002) dioten bezala, umeek euren buruei errua botatzen diete txarto portatu direla esanez eta aita etxetik doanean, bere itzulera etsipenez itxaroten dute. Banaketa, eurenganako ukapena bezala ikusten dute, uste baitute joan den gurasoak jada ez dituela maite eta ordezkatuak izatearen beldur dira.

Erregresioak ere, askotan gertatzen diren erreakzioak dira. Benedek eta Brown (1999), Fernández eta Godoy (2009), González (2003) eta López-ek (2010) adierazten duten moduan, ume askok dibortzio baten ostean, aurretik gairatutako garapen etapetara bueltatzen dira, esaterako atzamarra zurrupatzea, gainean txiza egitea, atxikimendu objektu bat berriz ere izatea eta abar. Modu horretan, umeek gurasoen laguntza eta segurtasuna bilatzen dituzte.

Horren ildotik jarraituz bakardade sentimendua ere badago. Umea jaiotzen denetik sozializatzen hasten da. Hasieran amarekin eta gero familiako beste kideekin. Erlazio hauen araberakoak izango dira gero umeak etorkizunean izango dituen harreman sozialak. Hala, kide bat familiarik joaten denean, bere tokian hutsune handi bat geratzen da. Hori dela eta, umeak bakarrik sentitzen dira gurasoetako batek berarekin bizitzeari utzi diolako (Benedek eta Brown, 1999; Campbell eta Muncer, 1999; Echeburua eta Alzate, 1990; Fernández eta Godoy, 2009).

Oso ohikoa den beste erreakzio bat, errefusapena da. Benedek eta Brown (1999) eta Fernández eta Godoy-k (2009) adierazten duten bezala, oso zaila da ume batek ulertzea gurasoen banaketa soilik aita eta amaren arteko zerbait dela. Hori dela eta, gurasoen artean errefusapena ikusten dutenez, uste dute eurek ere errefusatuko dituztela.

Eskola arazoak gero eta ohikoagoak izaten dira. Bengoechea (1992), Benedek eta Brown (1999), Brenner (1987), Campbell eta Muncer (1999), Cantón, Cortés, Justicia eta Cantón (2016), Fernández eta Godoy (2009) eta Martínez eta Garriga-k (2009) dioten moduan, dibortzioaren urte batzuk geroago, umeen zainketaz eta hezkuntzaz arduratu ez den gurasoa ez badute berriz ere ikusi, horrek ondorioak izaten ditu umeen eskola errendimenduan. Umeek atentzioa eta kontzentrazioa galtzen dituzte eta distrahituta egoten dira. Gainera, aitaren irudia ez dagoen etxeetan bizi diren umeek

motibazio, errendimendu eta hezkuntza jomuga gutxiago izaten dituzte, eskolan agresibitatea erakusten dute eta gelakideekin ez dute harremanik mantentzen.

Amaitzeko, adiskidetzearen nahia aipatu beharra dago. Dibortzioaren urte batzuk geroago, umeek oraindik pentsatzen jarraitzen dute noizbait euren gurasoak berriro elkartuko direla. (Benedek eta Brown, 1999; Fernández eta Godoy, 2009; López, 2010).

### **2.3. OINARRIZKO ESTRATEGIAK HAURREI DIBORTZIO EGOERETAN LAGUNTZEARI BEGIRA**

#### **2.3.1. GURASOEN ESTRATEGIAK**

Hasteko, oso garrantzitsua da umeak bere egokitzapenarentzat gurasoen banaketa ulertzea. Alde batetik, zentzu bat emateko banaketari eta bestetik, esanahi berri bat emateko bere eguneroko bizitzan berarekin egongo ez den gurasoarekiko harremanari. Banaketak umeengan, euren lagunen eta familiako kideen galtzea suposatuz dezake eta umeek estres hori gainditzearen beharra izango dute (Cantón, Cortés eta Justicia, 2009).

Izan ere, Fernández eta Godoy (2009), López (2010) eta Pagès i Crivillé-k (2002) dioten moduan, gurasoen banaketak ondorio gutxiago izango ditu beti eta gurasoen banaketak ez badu umeekiko banaketa suposatzen. Garrantzitsua da, nahiz eta gurasoak bananduta egon, presente egotea. Hala, umearen egokitzapena egoera berriarekiko askoz hobetua izango da. Halaber, James, Friedman eta Matthews-ek (2002) diote, dibortzio baten aurrean umeek konfiantza, errutinak, segurtasuna eta familia berriz ere elkarrekin jarraituko duelaren ustea galtzen dituztela.

Beraz, aipatu bezala, banaketaren aurrean kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsuenetariko bat, umeen ulermena ziurtatzea da. Izan ere, familien arteko erlazio kalitatea, umeen osasun psikologikoaren efekturik boteretsuena da, gurasoen banaketa gertatu baino lehen eta ondoren egon behar dena (Fernández eta Godoy, 2009). Aipatu beharra dago, López-ek (2010) dioen moduan, gurasoek ohiko akats batzuk betetzen dituztela banaketaren prozesua ematen den bitartean. Adibidez, seme-alabei dibortzioaren erabakia ezkutatzea; umeek modu zirkunstantzial baten bidez dibortzioaren berri izatea, beste familia kide batzuen bitartez edota beraiei bideratuta ez dauden elkarrizketak entzunez; gurasoek dibortzioaren berri ematea inolako azalpenik

gabe; ez azaltzea eurei ez zaiela ezer gertatuko eta gurasoak bere zainketaz arduratuko direla; ez azaltzea berarekin zer gertatuko den eta zein izango den familiaren egoera berria; eta abar.

Hala, umeek dibortzioa modu egoki batean ulertzeko eta hobekien eramateko, euren gurasoek hartzen dituzten erabakiei dagokienez, informazio egokia behar dute. Ez da beharrezkoa zehaztasun guztien berri ematea, baina eurek euren gurasoen erabakien errudunak ez direla argi utzi behar zaie, oso ohikoa den erru sentimendutik umeak aldentzeko eta azaldu behar zaie bi gurasoak nahiz eta elkarrekin ez bizi, umeak ikusten eta euren zainketaz arduratzen jarraituko dutela (Benedek eta Brown, 1999; Fernández eta Godoy, 2009; López, 2010). Bai eta eurenganako maitasuna aldatuko ez dela ere. Horrez gain, umei pentsatzen dutena adierazten utzi behar zaie, euren sentimenduak, kezkatzen diena eta abar. Modu horretan, nola sentitzen diren jakingo dute. Horrela, umei aukera eman behar zaie gaiaz hitz egiteko, euren antsietatea murriztu aldera. Gainera, gurasoek jarrera beroak eta afektuzkoak izan behar dituzte eta enpatia erlazioen erdigunea izan behar da, umei erakusteko gurasoek euren beharrak asetuko dituztela eta behar dutenean aita eta ama hor egongo direla beraientzat, behar duten segurtasuna eta laguntza eskainiz (Cantón, Cortés, Justicia eta Cantón, 2016; Dolto eta Angelino, 2011; Dowling eta Barnes, 2008; Echeburua eta Alzate, 1990; Fernández eta Godoy, 2009; López, 2010; Ortega, 2016; Pagès i Crivillé 2002).

Horren ildotik jarraituz, López-ek (2010) gomendatzen du, umeari berea den toki egonkor bat eskaini behar zaiola eta baita etxe konkretu bat. Ahal izatekotan, etxe eta logela berdinak izan behar dira, hau da, dibortzioa gertatu baino lehen bizi zen etxea mantentzea. Horrez gain, eskola eta auzo berdinak mantentzea ere garrantzitsua da, umearen sare soziala ez apurtzeko. Hala, ezin dira ahaztu behar bi familiekin zituen harremanak ez direla apurtu behar, umearen segurtasunari ez eragiteko.

Orobat, gurasoen banaketen eraginez, umeengan sortzen diren ondorioak direla eta, gaur egun gomendatzen den metodorik onena umeak banaketa ahalik eta hobekien eramateko, kustodia partekatua da. Hau da, adostu beharko litzateke bi gurasoek umeari denbora berdina dedikatzea eta bere zainketa eta hezkuntzan inplikazio eta ardura berdina erakustea. Horretaz aparte, umeek eurek nahi duten gurasoarekin bizitzeko aukera izan behar dute eta beste gurasoak haurrarekin erlazionatzen jarraitu behar du, eguneroko bisitak areagotzen eta modu horretan, umeen erlazio afektiboak euren gurasoekiko hobetzen eta errazten (Benedek eta Brown, 1999; Berry eta Greenspan,

2005; Encabo eta Romero, 2012; Fernández eta Godoy, 2009; González, 2013; López, 2010; Pagès i Crivillé 2002). Horrez gain, Fernández eta Godoy-ren (2009) esanetan, garrantzitsua da banaketaren aurrean umearen ongizatea bermatzeko, gurasoek erlazio jarraitua mantentzea umeekin, bi gurasoek umeen behar emozionalei behar bezala erantzutea, umeekin zerikusia duten arazoetan bi gurasoak inplikatzeko eta umeek familia eta lagunekin erlazioa mantentzea.

### 2.3.2. ESKOLAREN ESTRATEGIAK

Gordillo, Gordillo, Gordillo, Guillén eta Ruiz (2013), Liberman (1983), Martínez eta De Paul (1993), Mateu (2013) eta Robledo-ren (2010) arabera, eskola umeen erreferentzia puntua da, familiarekin ez daudenean, familia eta gero bertan baita non galtze garrantzitsu baten ondoren sortzen diren adierazleak adierazten diren. Toki honetan, profesional ezberdinek umeak behatzeko denbora tarte luzeak dituzte, modu horretan txikien jarreretan eta itxuretan erreparatzeko. Gainera, irakasleek ez dute aukera soilik umeekin kontaktua ezartzeko, familiaren egoera ezagutzeko gurasoekin ere kontaktua izateko aukera dute. Izan ere, kontaktu horri esker, irakasleak posiblea du familia eta umeen jarrerak ezagutzea eta arrisku egoera posibleak detektatzea. Halaber, eguneroko kontaktu horrek, hasieratik arazo ezberdinak detektatzea baimentzen du. Orobat, Fitzgerald, Strommen eta MacKinney (1987), Liberman (1983) eta Sancho-k (2000) esaten duten moduan, eskolak baliabideak, estrategiak, laguntzak, ekintzak eta giroak eskaini behar ditu, umeen garapena bermatu aldera.

Familia batean banaketa prozesu bat gainditzeak zalantza eta nahaste maila altuak sortzen ditu. Hala, egoera hauen aurrean, eskola haur txikiei segurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza transmititzen dien espazioa bihurtu daiteke, egoerari aurre egiten laguntzeko. Azken batean, umei normalean asko kostatzen zaie etxean bizi duten egoeraz hitz egitea. Hori dela eta, irakasleak interesa erakutsi behar dio umeari eta jakinarazi, bera laguntzeko eta entzuteko prest dagoela, konfiantzazko giro bat eraikiz. Izan ere, umea eskolan seguru sentitzeko eta umea babesteko, eskolak umeak ondo zaindu behar ditu, irakasleak irekiak izan behar dira eta diziplina ondo ezarrita egon behar da, betiere malgutasuna eta ulermena erabiliz. Modu honetan, eskolak babesa transmititzen die umei, laguntza, erregulazio emozionala eta egitura ematen dizkielako. Batez ere, familia dibortziatuen umei, zenbaitetan ez dagoelako autoritatea modu

egokian erabiltzen duen aita edo ama arduradunik (Alegret, Castanys eta Sellarés, 2010; Hetherrington, Kelly eta González, 2005; Ortega 2016).

Ortega (2016) eta Robledo-ren (2010) esanetan, banaketaren ondorio negatiboak oso ezberdinak dira eta gurasoak banaketaren eraginez oso kaltetuak daudenean areagotzen dira, zailtasunak erakusten dituztelako euren umeen beharrak asetzeko. Bada, egoera hau familia nukleo baten barnean presente dagoenean, oso ohikoa izan daiteke umearen nahaste hori eskolan detektatzea, Geddes-en (2010) arabera, umeek euren jarreraren bidez adierazten dutelako bizi duten egoera. Alegret, Castanys eta Sellarés (2010), Ortega (2016) eta Robledo-k (2010) aipatzen dute guraso bananduen ume askok eskolan aldaketa eta asaldura handiak erakusten dituztela, antsietate, bakardade eta tristura jarrerak azalduz. Askotan ere, bizi diren gurasoarekiko beldurra sentitzen dute banaketaren aurrean eta eskolara joan nahi ez izatearen jarrera erakusten dute. Horrez gain, interes falta, motibazio eza, parte-hartze eza eta beste gelakideenganako harreman falta, txikien egoera emozionala erakusten dute (Ortega, 2016).

Zalantza gabe, Barea, Ben-Yahia, Luque eta Fernández-Molina (2015), Cairns (1996), Dowling eta Barnes (2008), Liberman (1983), Ortega (2016), Palou (2004), Peine eta Howarth (2002), Robledo (2010) eta Tavernier eta Guillaud-en (1991) arabera, zailtasun guzti hauek gainditzeko, eskola eta familiaren arteko elkarlana ezinbestekoa da eta euren arteko inplikazioa eta erlazioen kalitatea lehentasunezkoa izan behar da. Bi norabideko harreman honek erakusten du zer nolako garrantzia duen hezkuntza instituzioak egoera honetatik igarotzen diren umeak laguntzerako orduan. Azken finean, eskola familiarekin batera umeen hezkuntzaren arduraduna da eta askotan bertan etxean gertatzen dena islatzen da.

Haurrek harreman egonkor eta jarraitua izan behar dute haiek zaintzen eta babesten dituzten pertsonekin eta ikertzeko eta jolasteko beharrianak asetzen dizkieten pertsonekin. Familiaren eta eskolaren arteko elkarlanean, haurren ongizaterako baldintza egokiak sortu behar dira, eta eskolan atxikimendu-figurak sortzeko modua eman behar dute baldintza horiek (D 237/2015, abenduaren 22koa).

Aipatzekoa da, egoera hauek dakartzaten ondorioak umeen adinaren arabera izango direla. 2 eta 6 urte bitarteko umeak erru sentimendua, abandonu eta bakardade sentimenduak esperimendatzen dituzte eta gurasoen banaketaren eraginez antsietate, tristura, haserrea, negargura handiak, energia maila baxua, atentzio arazoak, interes eza, agresibitatea, parte-hartzerik eza, hiperaktibitate eta jarrera bihurriak erakusten dituzte.

Gainera, errealitatea ez dute behar bezala ulertzen eta horren ondorioz, egoera horrenganako pentsamendu eta uste okerrak izaten dituzte (Martínez eta Garriga, 2009; Ortega, 2016; Robledo, 2010).

Irakasleek, umeei eragiten dieten egoera guztien berri izan behar dute, euren lanaren eginkizunetako bat umeak laguntzea baita. Gainera, irakasleen paperak Haur Hezkuntzako etapan berebiziko garrantzia du, askotan umeen aldaketez ohartzen diren lehenengoak baitira. Hala, irakasleak baliabide ezberdinez hornitu behar dira, umeen sentimendu eta usteetara hurbiltzeko eta laguntza eskaini ahal izateko. Horrez gain, Gordillo, Gordillo, Gordillo, Guillén eta Ruiz-ek (2013) dioten moduan, eskolan orientazio talde bat egotekotan, bere laguntza ere eskaini beharko litzaioke irakasleari. Marrazkiak esaterako umeei buruzko informazioa jasotzeko baliabide bikainak dira, umeek burutzen dituzten trazuei eta erabiltzen dituzten koloreei esker, euren sentimenduak ezagutzeko aukera dagoelako. Ipuin narrazioak eta istorio-antzerkiak ere oso baliabide egokiak dira gela barruan lantzeko, modu horretan umeak banaketaren egoera hobeto ulertzeko eta protagonistarekin identifikatu ahal izateko. Rol-jolasak ere erabilgarriak dira, umeari aukera ematen diotelako bere sentimenduen arabera pertsonaia ezberdinak antzezteko. Talde dinamikak ere ezin ditugu ahaztu behar, non gelako ume guztiek euren familien berri eman ahal duten familia ezberdinak ezagutzeko eta aldi berean euren usteak eta pentsamenduak partekatu ahal dituztelako. Azkenik, ume bakoitzak bere familiaren albuma eskolara eramatea ere oso esanguratsua da, modu horretan familia egiturak nolakoak diren jakiteko. Hala, irakasleak aukera izango du familia mota ezberdinak umeekin lantzeko (Barea, Ben-Yahia, Luque eta Fernández-Molina, 2015; Ortega, 2016; Schenetti, 2011). Modu horretan, baliabide hauei esker, Schenetti-k (2011) aipatzen duen lez, elkarrizketak, ideia eta iritzi ezberdinen partekatzeak eta esperimentazio emozionalak sortu daitezke.

### 3. ONDORIOAK

Ikerketa egin eta gero, egiaztatu daiteke familia eta eskola umearen garapena eraikitzeke bi hezkuntza instituzio garrantzitsuenak direla. Hori dela eta, ezinbestekoa da bien arteko zereginak eta funtzioak elkarlanean burutzea. Dibortzioak, banaketak edota guraso baten aldentzeak eta abandonuak, gure gizartean gero eta ohikoagoak diren egoerak dira. Horregatik, ezinbestekoa da umearen bizitzan parte-hartzen duten

pertsonak eta instituzioek baliabide eta estrategia ezberdinak ezagutzea, egoera honetatik igarotzen diren umeak euren egoera berria ulertzen lagundu ahal izateko.

Umeak, kasu hauen biktima nagusiak dira eta euren erreferentziazko helduen partetik behar duten laguntza jaso behar dute. Hortaz, gurasoak ez dira inplikatu bakarrak izan behar arazo familiar baten eraginez sortutako arazoa izateagatik, hezkuntza komunitatea (eskola eta irakasleak) ere inplikaturik egon behar da, orobat, familiar sortutako edozein arazok eskolan eragina duelako eta alderantziz. Txikiak etxearen ondoren, eskolan da denbora gehien igarotzen duten tokia, beraz, etxean egon daitezkeen arazoen eraginez sortzen diren asaldurak edota nahasmenduak, eskolan detektatu daitezke hasieratik. Esan bezala, familiek eta eskola elkarlanean aritu beharra dute eta txikiaren garapen egokirako, beharrezkoa da bi testuinguruek umeari estrategiak, baliabideak eta laguntzak eskaintzea, umearen segurtasuna bermatu aldera. Hala, ezinbestekoa da familiak eskolari arazoaren berri ematea eta horretaz ondo informatzea, eskolak familiarren egoera ulertzeko eta umeak lagundu ahal izateko.

Azken finean, mota honetako edozein egoerak, guk uste baino ondorio kaltegarriagoak sortu ditzake umeen bizitzetan, batez ere txikiak direnean. Hori dela eta, egoera horri behar duen garrantzia eman behar zaio eta ez da baztertu behar umeak txikiak izateagatik eta ez ulertzeagatik. Askotan helduak ez dira konturatzen, baina umeek sufritzen dituzten saminduak izaten dira eta helduen jarreraren arabekoak izan daitezke umeek pairatzen dituzten hainbat ondorio.

Hala, lan honetan zehar egiztatu ahal izan da zer nolako ondorioak pairatu ditzaketen umeek dibortzio egoera baten eraginez eta zer nolako estrategiez baliatu daitezkeen gurasoak eta eskola umeek bizi duten egoera berria ulertzeko eta egokitzen laguntzeko. Umeei argi utzi behar zaie bizi duten egoera guztiz normala dela eta behar duten informazioa eskaini behar zaie, jasaten duten antsietatea murrizteko.

Amaitzeko, esatea lan honetan egindako ikerketan jaso den informazioa oso erabilgarria izan daitekeela bai dibortzio egoera baten prozesutik igarotzen ari diren gurasoentzat zein eskolan guraso dibortziatuen ikasleren bat duten irakasleentzat ere.

#### **4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

11864 Legea 15/2005. Por la que se modifican el Código Civil y la Ley de Enjuiciamiento Civil en materia de separación y divorcio, BOE, Madril, Espainia, 2005eko uztailaren 8an.



- 16216 Legea 30/1981. Por la que se modifica la regulación del matrimonio en el Código Civil y se determina el procedimiento a seguir en las causas de nulidad, separación y divorcio, BOE, Madrid, España, 1981eko uztailaren 7an.
- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko (EHAA 2016-01-15).
- Acosta, A. (2017). Padres ausentes: Conoce las 4 nefastas consecuencias. *Familias.Com*. 2017-11-12an berreskuratua, hemendik: <https://familias.com/6044/padres-ausentes-conoce-las-4-nefastas-consecuencias>
- Acosta, I. eta Bembibre, J. (2016). Duelo infantil por la muerte del progenitor y trabajo social. Una perspectiva evolutiva. *Azarbe. Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 5. 2018-01-11an berreskuratua, hemendik: <https://revistas.um.es/azarbe/article/view/266951>
- Alberdi, I. (1999). *La nueva familia española*. Madrid: Taurus.
- Alegret, J., Castanys, E. eta Sellarés, R. (2010). *Alumnado en situación de estrés emocional*. Barcelona: Graó.
- Barea, S., Ben-Yahia, Y., Luque, C. eta Fernández-Molina, M. (2015). Experiencias sobre separación y divorcio en tres aulas de Educación Infantil. Una propuesta de intervención. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30(2), 173-187. 2018-04-22an berreskuratua, hemendik: <http://www.revista.uclm.es/index.php/ensayos>
- Bel Bravo, M. (2000). *La familia en la historia*. Madrid: Ediciones Encuentro, S.A.
- Benedek, E. eta Brown, C. (1999). *Cómo ayudar a sus hijos a superar el divorcio*. Barcelona: Médici.
- Bengoechea, P. (1992). Un análisis exploratorio de los posibles efectos del divorcio en los hijos. *Psicothema*, 2, 491-511. 2018-04-22an berreskuratua, hemendik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=72704213>
- Benson, J. eta Haith, M. (2010). *Social and Emotional Development in Infancy and Early Childhood* (282-286orr). Burlington: Elsevier Science.
- Berry, T. eta Greenspan, I. (2005). *Las necesidades básicas de la infancia. Lo que cada niño o niña precisa para vivir, crecer y aprender*. Barcelona: Graó.
- Borobio, D. (1994). *Familia en un mundo cambiante* (61-82orr). Salamanca: Universidad Pontificia.
- Bowlby, J. (2006). *Los vínculos afectivos: formación, desarrollo y pérdida*. Madrid: Morata.
- Brenner, A. (1987). *Los traumas infantiles. Cómo ayudar a vencerlos*. Barcelona: Planeta.
- Bronfenbrenner, U. eta Condry, J. (1970). *Two worlds of childhood*. New York: Russell Sage Foundation.
- Cairns, E. (1996). *Children and political violence* (70-104orr). Oxford: Blackwell Publishers.
- Campbell, A. eta Muncer, S. (1999). *The social child*. Hove: Psychology P.
- Cantón, J. eta Cortés, M. (1997). *Malos tratos y abuso sexual infantil*. Madrid: Siglo XXI.
- Cantón, J., Cortés, M. eta Justicia, M. (2009). *Conflictos entre los padres, divorcio y desarrollo de los hijos*. Madrid: Pirámide.
- Cantón, J., Cortés, M., Justicia, M. eta Cantón, D. (2016). *Violencia doméstica, divorcio y adaptación psicológica*. Madrid: Pirámide.
- De la Herrán, A. eta Cortina, M. (2006). *La muerte y su didáctica*. Madrid: Universitas.
- De la Serna, J. (2017). Consecuencias en los hijos de un padre ausente. *Cátedra abierta de Psicología y Neurociencia*. 2017-11-10ean berreskuratua, hemendik:

<https://juanmoisesdelaserna.es/psicologia/consecuencias-en-los-hijos-de-un-padre-ausente>

- De Paul, J. (1987). *Los malos tratos y el abandono infantil*. Donostia: UPV-EHU.
- Dolto, F. eta Angelino, I. (2011). *Cuando los padres se separan*. Bartzelona: Paidós.
- Dowling, E. eta Barnes, G. (2008). *Cómo ayudar a la familia durante la separación y el divorcio*. Madril: Morata.
- Echeburua, E. eta Alzate, R. (1990). *Cuadernos de extensión universitaria. Trastornos de conducta en la infancia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Elosua, P., Arrieta, B., Unanue, B. eta Aizpitarte, A. (2005). *Sozializatzeko estiloen garapena (27-40orr)*. Gizarte Psikologia eta Portuera Zientzien Metodologia Saila: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2018-01-09an berreskuratua, hemendik: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/viewFile/3216/4142>
- Encabo, E. eta Romero, J. (2012). *Custodia consensuada*. Valentzia: Litera Libros.
- Etxeberria, Y. eta Pérez de Onraita, F. (2010). Lo que necesitamos de las relaciones. *Instituto de Psicoterapia Integrativa*. 2018-01-11ean berreskuratua, hemendik: <http://www.integrativetherapy.com/es/articles.php?id=71>
- Fernández, E. eta Godoy, C. (2009). *El niño ante el divorcio*. Madril: Pirámide.
- Fitzgerald, H., Strommen, E. eta MacKinney, J. (1987). *Psicología del desarrollo*. Mexiko, D.F.: El Manual Moderno.
- Franco, T. (2011). *Vida afectiva y educación infantil*. Madril: Narcea.
- Fresneda, J., Morell, J. eta Rodríguez, M. (2017). *Cuida de mí. Claves de la resiliencia familiar*. Madril: Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Gardner, R. eta Weil, M. (1995). *Las preguntas de los niños sobre el divorcio*. Mexiko: Trillas.
- Geddes, H. (2010). *El apego en el aula*. Bartzelona: Graó.
- Golombok, S. (2006). *Modelos de familia*. Bartzelona: Graó.
- Gómez-Sancho, M. (2004). *La pérdida de un ser querido, el duelo y el luto*. Madril: Arán.
- González, C. (2013). *Creciendo juntos*. Madril: Ediciones Temas De Hoy.
- González, M. (2003). *Divorcio. ¿Qué huella dejará en los hijos?*. Madril: EDIMAT.
- Gordillo, M.J., Gordillo, M.D., Gordillo, T., Guillén, E. eta Ruiz, I. (2013). Crecer con la pérdida: El duelo en la infancia y adolescencia. *Psicología Positiva: Desarrollo y educación*, 1, 493-498. 2018-01-10an berreskuratua, hemendik: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4455630>
- Gracia, E., Lila, M. eta Musitu, G. (2005). Rechazo parental y ajuste psicológico y social de los hijos. *Salud Mental*, 28(2). 73-81. 2018-04-09an berreskuratua, hemendik: <http://www.medigraphic.com/cgi-bin/new/resumen.cgi?IDARTICULO=6724>
- Herbert, M. (2002). *Padres e hijos*. Madril: Pirámide.
- Hernández, M. (2011). *Las creencias de niños y adolescentes sobre el divorcio y sus efectos* (Doktoretza). Tenerife: La Laguna Unibertsitatea.
- Hetherington, E., Kelly, J. eta González, A. (2005). *En lo bueno y en lo malo*. Bartzelona: Paidós.
- Iglesias, B. eta Romero, E. (2009). Estilos parentales percibidos, psicopatología y personalidad en la adolescencia. *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica*, 63-67. 2018-01-09an berreskuratua, hemendik: <http://www.aepcp.net/rppc.php?id=176>
- James, J., Friedman, R. eta Matthews, L. (2002). *Cuando los niños sufren*. Madril: Los Libros del Comienzo.
- Kagan, J. (1984). *El niño hoy. Desarrollo humano y familia*. Madril: Espasa Calpe.

- Kempe, R. eta Kempe, C. (1985). *Niños maltratados*. Madril: Ediciones Morata.
- Kübler-Ross, E. eta Kessler, D. (2016). *Sobre el duelo y el dolor*. Bartzelona: Luciérnaga.
- Kübler-Ross, E., Kessler, D. and Avalos, B. (2012). *Lecciones de vida*. Bartzelona: Luciérnaga.
- Lamb, M. eta Lerner, R. (2015). *Handbook of child psychology and developmental science*. Canada: Wiley.
- Liberman, R. (1983). *Los Hijos ante el divorcio*. Bartzelona: Hogar del Libro.
- Lizaso, I. eta Apodaka, M. (2008). *Giza garapen psikologikoaren ereduak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- López, F. (2010). *Separarse sin grietas*. Bartzelona: Graó.
- Marquina, M., Oviedo, S.J. eta Parra, F.M. (2009). La muerte y el duelo. *Enfermería Global*, 15. 2018-01-10ean berreskuratua, hemendik: <http://revistas.um.es/eglobal/article/view/50381/48301>
- Martínez, A. eta De Paúl, J. (1993). *Maltrato y abandono en la infancia*. Bartzelona: Martínez Roca.
- Martínez, J. eta Garriga, A. (2009). *Las secuelas del divorcio*. Madril: Fundación Universitaria San Pablo-CEU.
- Mateu, R. (2013). *La resiliencia y el duelo en contextos educativos*. Castelló de la Plana: Publicacions de la Universitat Jaume I.
- Menéndez, I. (2017). Así marca un padre. *Mujerhoy*. 2017-11-10ean berreskuratua, hemendik: <http://www.mujerhoy.com/vivir/psicologia/201703/15/marca-padre-20170315131509.html>
- Morales, N. eta Renée, M. (2016). La huella del abandono: consecuencias de un padre ausente. *Asociación la Familia Importa*. 2017-11-10ean berreskuratua, hemendik: <http://www.lafamiliaimporta.org/blog/la-huella-del-abandono-consecuencias-de-un-padre-ausente>
- Moreno, J. eta Rabazo, M. (2005). El abandono del niño: Limitaciones en el estudio del abandono físico infantil. *Puertas a la lectura*, 18, 140-152. 2018-01-10ean berreskuratua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5963826>
- Morgado, B. (2003). El divorcio desde una mirada de los niños. Una revisión teórica. *Familia: Revista de Ciencias y Orientación Familiar*, 26, 49-62. 2018-04-23an berreskuratua, hemendik: <http://summa.upsa.es/pdf.vm?id=0000028383&page=1&search=&lang=es>
- Oiarzabal, M.A. (1988). Cuadernos de extensión universitaria. *Familia y cambio social*. Bilbo: UPV-EHU.
- Ortega, C. (2016). *¿Cómo afrontar el divorcio en la escuela?* (Gradu Amaierako Lana). Kantabriako Unibertsitatea. 2018-04-28an berreskuratua, hemendik: <https://repositorio.unican.es/xmlui/bitstream/handle/10902/9318/OrtegaAlbaCelia.pdf?sequence=1>
- Ortiz, M. eta Yárnoz, S. (1993). *Teoría del apego y relaciones afectivas*. Bilbo: UPV/EHU.
- Pagès i Crivillé, M. (2002). *Hijos y divorcio*. Bartzelona: Martínez Roca.
- Palou Vicens, S. (2004). *Sentir y crecer. El crecimiento emocional en la infancia*. Bartzelona: Graó.
- Papalia, D. eta Olds, S. (1992). *Psicología del desarrollo*. México: McGraw-Hill.
- Papalia, D., Olds, S. eta Duskin, R. (2009). *Psicología del desarrollo*. México: McGraw-Hill.
- Parke, R. eta Guera, A. (1981). *El papel del padre*. Madril: Morata.

- Peine, H. eta Howarth, R. (2002). *Padres e hijos*. Madril: Siglo XXI.
- Polaino-Lorente, A. (2005). La importancia de la figura del padre. *Familia: Revista de Ciencias y Orientación Familiar*, 31, 19-34. 2017-11-12an berreskuratua, hemendik: <http://summa.upsa.es/pdf.vm?id=0000029284&page=1&search=&lang=es>
- Prat, N. eta Del Río, M. (2005). *Desarrollo socioafectivo e intervención con las familias*. Bartzelona: Altamar.
- Robaina, G. (2001). El maltrato infantil. *Revista Cubana de Medicina General Integral*. 2018-01-11an berreskuratua, hemendik: [http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0864-21252001000100011](http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-21252001000100011)
- Robledo, M. (2010). Profesores y mediación familiar como alternativa para una mejor adaptación de los niños/as ante el divorcio. *Intervención Psicoeducativa en la Desadaptación Social: IPSE-Ds*, 3, 31-40. 2018-04-28an berreskuratua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3697767>
- Rodríguez de Ibarra, D. (1999). Proyecto familia. Aprendiendo a ser papá. *El Norte*. 2018-01-12an berreskuratua, hemendik: <https://search.proquest.com/docview/316163549/fulltext/A4C221AA325B4C50PQ/12?accountid=17248>
- Rodríguez, N. (2010). *Los efectos de la ausencia paterna en el vínculo con la madre y la pareja* (Lizentzia). Pontificia Universidad Javeriana. Psikologiako fakultatea. 2018-01-12an berreskuratua, hemendik: <https://repository.javeriana.edu.co/handle/10554/1281>
- Rondón, L. eta Funes, E. (2011). *Cambios sociales y perspectivas de la mediación para el siglo XXI*. (84-95orr). Sevilla: Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea. 2018-02-14an berreskuratua, hemendik: <https://www.unia.es/explorar-catalogo/item/cambios-sociales-y-perspectivas>
- Sabater, V. (2015). Curar las heridas del padre ausente. *La mente es maravillosa*. 2017-11-10ean berreskuratua, hemendik: <https://lamenteesmaravillosa.com/curar-las-heridas-del-padre-ausente/>
- Salzberg, B. (1993). *Los niños no se divorcian*. Argentina: Beas Ediciones.
- Sanabria, J. (2009). El abandono emocional y físico es frecuente en los niños cuando papá no está durante la crianza. *El Tiempo*. 2018-01-12an berreskuratua, hemendik: <https://search.proquest.com/docview/336758427/fulltext/8966B79889FC4D69PQ/1?accountid=17248>
- Sancho, V. A. (2000). *La seguridad emocional en la educación infantil*. 2018-01-12an berreskuratua, hemendik: <http://www.redalyc.org/pdf/274/27411927009.pdf>
- Schaffer, H. (2009). *Social development*. Oxford: Blackwell Publishers.
- Schenetti, M. (2011). *Comprender el dolor infantil*. Bartzelona: Graó.
- Solsona, M. eta Treviño, R. (1990). *Estructuras familiares en España*. Madril: Gai Sozialen Ministerioa. Emakumearen Institutua.
- Tabera Galván, M. eta Rodríguez de Lorza, M. (2010). *Intervención con familias y atención a menores*. Pozuelo de Alarcón, Madril: Editex.
- Tavernier, R. eta Guillaud, G. (1991). *La enseñanza entre los dos y los cuatro años*. Bartzelona: Martínez Roca.